



NAHIKO! 5-6

NOR NAIZ NI?

1

UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEEN GIDA (1/2)

Irakasle agurgarria:

EMAKUNDEren NAHIKO proiektuan parte hartzen ari zara ikasturte honetan. Egitasmo honen helburua giza eskubideetan oinarritutako emakumeek jasaten dituzten etxeko tratu txarren aurkako sentsibilizazio eta prebentzioa da, etorkizunean gure ikasleek pareja eta familia dutenean, hauek elkarren arteko errespetuan, parekotasunen eta maitasunean oinarritu ditzaten, giza eskubideak nagusi daitezen, kalean bezala, bere etxean eta etxekoen artean.

“NOR NAIZ NI?” lehendabiziko atal honetan, beren buruari buruzko hausnarketa proposatzen diegu, bere burua hobeto ezagutu eta onartu dezaten. Bere inguruan pertsona diferente asko daudela ikusi ahal izango dute, etiketatu ezineko emakume eta gizon ezberdin asko, adin, bizimodu, ohitura, jazkera, arraza, kultura, ogibide... ezberdinekoak. Aniztasun aberats hau gizon-emakumeen adierazgarri pozgarria da. Etiketa guztien kontra babestu eta bultzatu behar dena, bereziki gizon eta emakumeei pertsona status ezberdina ematen dieten genero etiketa edo estereotipoetatik. Bestalde autoestima lantzeko materialak eta ekintzak aurkituko dituzu. Soilik bere burugan konfidantza duenak esan dezake bai ala ez inguruko presioak gaindituz eta berarentzat egokiena bilatuz. Azkenik, ikasturte osoaren zehar ardatza izango diren giza eskubideen sarrera eta lehen artikulak lantzen ditugu, etxera eta familiara hurbilduz.

Eskerrik asko zure laguntzagatik!

1 HELBURUAK ETA EDUKIAK

Emakume eta gizonen aniztasunaz jabetzea eta hori altxor baliotsua dela ulertzea, babestu eta landu beharreko zerbait, guztiak errespetatuz, pertsona estatusa, askatasun, duintasun eta eskubide berberak ditugulako.

Aniztasun horren barruan gizonemakume bakoitza berezia eta ezberdina dela konturatzea eta indibidualitate edo banakotasun hori era positiboan baloratzea.

Norberak bere burua ezagutzen eta onartzen lagundu, bai alde onak eta bai hobetu beharrekoak, norberatasun horretik bestekin harreman on, osasuntsu eta parekotsuak izan ahal izateko.

Nork bere burua ezagutzeko, barneruntz begiratzeaz gain, ingurura ere begiratu behar duela ulertaraztea. Besteen ispiluan, etxekoen eta lagunen ispiluan, gizartearen ispiluan begiratu behar dugula gure autoirudia errealismoz egiteko.

Autoirudi hori egiazko, baliogarri eta lagungarria izan dadin, autoestimatik eraiki behar dugula konturatzea: gure izaera eta nortasunaren alde positibo ugariak baloratuz, aniztasun aberatsaren parte garena ulertuz, horretarako eskubide osoa dugulako eta gugan konfidantza osoa izanez.

Norberak nor dela eta izan behar dela ulertarazi, nahiz neska nahiz mutila jaio, gizartean sexu hauentzat dauden muga, itxaropen eta etiketa ezberdinen gainetik.

Bide horretan, etxeko harremanetan, gizartean bezala, norbanako guztiok bizitzeko, aske izateko eta segurtasun eskubidea dugula adierazi eta honen ondoriak aztertu.

2 MATERIALAK ETA EKINTZAK

Unitate didaktico honek **hiru material osagarri** hauek ditu:

- 1.- "Nor da nor?" jolasa.
- 2.- "Hitzez hitz" jolasa.
- 3.- "Etiketen jolasa".

Eta **bost koaderno** hauek:

- 1.- Irakaslearen gida, bi koaderno (1/2 eta 2/2), kolore urdinekoak.
- 2.- Ikaslearen "Nor naiz ni?" bi koaderno (1/2 eta 2/2) kolore horikoak.
- 3.- Familiaren "Nor naiz ni?" koaderno, kolore berdea duena.

Hona materiale hauek erabiliteaz gain proposatzen ditugun beste ekintza osagarri batzuk:

-Solaldia. Kartetan jolastu ondoren taldeka irudiak eta jolasa komentatu. Karta batzuk hartu eta bertan agertzen diren pertsonen bereisgarri amankomunak eta ezberdinak aipatu, bakoitza bakoitza dela azpimarratuz.

-Hitzen bila. Taldeka pertsonak deskribatzeko erabili daitezkeen hitz zerrendak egin: ahalmenak, izaerak, sentimentuak, zaletasunak, ohiturak, itxura fisikoa... Gero, taldeenak jasoz, guztien zerrendak osatu kartulinetan eta ikasgelan jarri. Idatzi aurretik, aztertu hitzak, zentzu positiboa edo beste markaren bat duten ala ez jakiteko.

-**Nesken hitzak eta mutilen hitzak, ala nere hitzak?** Biltzeko paperaren gainean neska eta mutil bat etzan eta haien silueta marraztu. Denon artean, silueta bakoitzean neskaemakumeei buruz eta mutilgizonezkoei buruz esaten diren gauzak, esaldiak... idatzi. Egia al dira silueta horiek? Bat datos ezagutzen ditugun neska-mutilekin, gure inguruko gizon-emakumeekin? Bakoitzak bere koadernoan, silueta bietatik hartuta, dagozkion hitzak idatz ditzala. Elkarrizketa izan bakoitzarekin honi buruz.

-**Lagun aholkularia.** Binaka bilduta, ikasle bakoitzak hau esan behar dio besteari: noiz sentitu den bereziki ondo norbaitek esandakoarekin eta zergatik; baita ere zer egiten duen norbaitek zerbait mingarria edo kaltegarria esaten dionean, zer esaten dion bere buruari egoera hau ganditzeko. Azken hauekin bi eslogan edo errotulu egin beharko ditu bikote bakoitzak eta, guztionak, gelako paretetan/kortxoan ipini. Azkenik, talde osoarekin, esaten diren hitz mingarri edo kaltegarri horiek, neska eta mutilen kasuetan berdinak al diren aztertu. Zeri buruzkoak diren: edertasuna, lodiera, trebesia, indarra, bihurrikeria, lana, adimena...?

3 "NOR DA NOR?" JOLASA

OSAGARRIAK:

54 kartaz osatutako bi baraja edo karta sorta. Aurrekaldetik berdinak biak, atzekaldea ezberdina dutelarik: NAHIKO logoaren erdia darama baraja bakoitzak, bata alde gorria eta bestea alde berdea. Baraja bakoitzak 54 karta ditu, 9 kartako 6 familiaz osatzen delarik. Denetara, baraja biek, 108 karta.

Bederatzi kartako sei familia osa daitezke. Batetik emakumeen eta bestetik gizonezkoen hiru familia daude: ume-gazteak (karten markoa eta izena urdina dute), helduak edo aita amak (karten markoa eta izena, berdea) eta zaharrak edo aitonaamonak (karten markoa eta izena, horia). Karta bakoitzeko persona irudiak bere izena darama eta, jolasa errezteko, zenbaki bat 1etik 9ra.

Material honekin proposatzen ditugun jolasek bi helburu dituzte: emakume eta gizonen aniztasunaz eta pertsona bakoitzaren berezitasunaz jabetzea eta onartzea, era berean ohizko genero ereduak eta irudiak gaindituz: emakume guztiak ez dira etxeoandreak, gizonezkoak ere umeak zaintzen dituzte, denok ez gara lirain, indartsu eta gazteak... itxura, arraza, ogibide, zaletasun, nortasun, maila ekonomiko, kultura, ohitura, adin, osasun... anitzekoak gara.



1.- FAMILIAKA:

Aipatutako sei familiak osatzeko jolasa. Karta-sorta batekin jolasten da (taldea handia bada, baraja biak elkartuz jolas daiteke). Ondo nahasi ondoren, sei karta banatu jokalaria bakoitzari eta besteak mahaiak utzi. Ezarritako txandaren arabera, jokalaria bakoitzak karta bat eskatzen dio berak nahi duenari. Adibidez: neska gazteen 4 zenbakia (neskeen karta urdinen 4 zenbakia duen karta). Hori eskatu ahal izateko, berak famili horretako kartaren bat izan behar du. Beste jokalaria, eskatutako karta badu, beti eman egin behar du. Horrela bada, beste karta bat eskatu diezaioke jokalaria berari edo beste bati. Eskatutako karta ez duenean, mahaiako multzotik bat hartu beharko du eta hurrengo jokalaria txanda izango da. Jokalariren bat kartarik gabe geratzen bada, erdiko multzotik beste bi karta hartuko ditu. Familia gehien lortzen dituenak da irabazlea.

2.- SEIETARA:

Karta guztiak banatu jokalariren artean, eta seieta bezala jolastu, familia bakoitzaren ilara 6 zenbakiarekin hasi eta ordena mantenduz mahai gainean kokatu: 6aren azpian 5a jarri, goian 7a, eta horrela familia osoa jarri arte. Jarri ezin dugunean, "paso" esan eta jarri gabe geratu. Bere karta guztiak lehen kokatzen dituenak da irabazlea.

3.- MEMORY:

Baraja biek jolastu behar da. Jokalaria kopuruaren arabera, soilik familia batzuekin edota guztiekin jolas daiteke. Kartak mahai gainean zabaltzen dira, atzekaldea goraka dutela eta, binaka altxatuz, bikoteak bilatu eta osatu behar dira. Jokalaria batek bikotea lortzen duenean, karta horiek mahaitik jasoko ditu. Bikote gehien egiten dituenak irabazlea da.

4.- NOR DA NOR?

Baraja bateko karta guztiak mahai gainean zabaltzen dira, aurrekaldea gora begira dutelarik. Jokalaria edo jokalaria talde batek isilean bat aukeratu eta irudiaren izena paper batean idazten du. Beste jokalariek, txanda bakoitzean galdera bakarra eginez, zein aukeratu duten asmatu beharko dute. Galderak, soil-soilik BAI eta EZ hitzez erantzungo dira. Nor den dakiela uste duen jokalaria bere txanda, galdera egin ordez, izena esateko erabil dezake. Asmatzen badu, berak aukeratuko du karta hurrengo partidaren. Asmatzen ez badu, jolasean jarraituko du. Bigarren batean ere, gaizki esan eta asmatzen ez badu, ezingo du jarraitu, jokoaren kanpo geratuko da hurrengo jokalarirarte.

5.- AZKEN PUTZ EDO IPURBELTZ:

Karta-sorta biek jolasten da. Jokalaria kopuruaren arabera, soilik familia batzuekin edota guztiekin jolas daiteke. Karta bat kendu behar da eta mahai gainean bistan utzi, beste barajako karta bera parejarik gabe gera dadin. Esaten denean (bat, bi eta hiru), albokoari karta bat pasa behar zaio erakutsi gabe. Bikotea osatzen duenak, mahaira botatzen du. Bukaeran parejarik gabeko kartarekin geratzen dena da galtzailea, prenda betetzen duena...



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

NAHIKO! 5-6

NOR NAIZ NI?

1

UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEEN GIDA (2/2)

4 HITZEZ HITZ

72 kartaz osatutako karta-sorta. Horietako 18 kartek pertsona baten irudia daramate, beste 18 kartak (erdikaldean gorri dutenak) hitz "gaizto" edo mingarriak (9 besteek esandakoak eta 9 norberak bere buruari esandakoak), beste 18 kartak (erdikalde berdea) besteek esandako hitz sendagarri eta onak jasotzen dituzte, eta azken 18 karta urdinek norberak bere buruari esandako hitz positibo, on eta autoestima eragileak. Pertsonen irudiak dituzten karten lau aldeak hori kolorekoak dira, beste karta guztienek berriz lau kolore ezberdin dituzte: horia, gorria, berdea eta urdina. Jokoa zehar, kartak bata bestearen alboan jarri behar direnean, kolore hauek errespetatuz egin behar da: albo gorria gorriekin, urdina urdinarekin eta abar.



Lagun asko
ditut,
lagunduko
naute.

Ez duzu inoiz
ezer ondo
egiten.

Beti zaude
laguntzeko
prest, eskerrik
asko.

Jolasen helburua zera adieraztea da: pertsona orok baduela bere bizitzan ingurutzen dituzten elementu hauek: beste persona batzuk, hauen ikuspegi positiboa (esandako esaldi "onak"), hauen ikuspegi edota esaldi negatiboak eta norberak duen autoirudia (gure buruari esaten dizkiogun esaldi on eta txar), eta inguruan dauzkagun guzti hauen arabera zoriotsu eta osasuntsu bizitzeko aukerak gehitu ala gutxitu egiten zaizkigula. Zenbat eta lagun, itxaropen eta balorazio on edo positibo gehiago gure inguruan, orduan eta hobeto sentituko gara, orduan eta orekatuago, orduan eta gaindituago, ezinbestez, inguruan izango ditugun alde negatiboak.

1.- HITZEZ-HITZ JOKOA:

Helburua mahai gainean jokalaria bakoitzak jarriko duen persona irudidun karta baten inguruan bere mundua sortzea da, hitzez hitz eta lagunez lagun. Jokalaria bakoitzak karta hau jarri behar du aurrena mahai gainean, beste edozein baino lehenago. Kartak banatu eta halakorik ez balu, "paso" esan eta mahaian geratu den karta multzotik beste bat hartu beharko du. Kartak alboko koloreak kontutan harturik kokatu behar dira, albo urdina urdinarekin jarritz, horia horiarekin, gorria gorriarekin eta berdea berdearekin. Kartak dagozkion jokalariai begira jarri behar dira beti, testua dutenak, adibidez, irakurtzeko moduan, eta ez buelta emanda edo trabezka. Karten alde motza motzarekin lotu behar da eta luzea luzearekin.

Kartak ondo nahasi eta jokalaria bakoitzari hamarna karta banatzen zaizkio. Txanda jarraituz, karten alboko koloreak errespetatuz, jokalaria bakoitzak karta bat jarri behar du mahaian dauden karten inguruan, bere pertsonaiaren inguruan edota beste jokalarienean. Jokalaria orok, jartzeko karta badu, karta jarri egin behar du derrigorrez. Jartzeko ez badu, "paso" esan eta karta multzotik beste bat hartu behar du.

Jokalaria batek bere karta guztiak jartzen dituenean, beste hiru hartuko ditu mahaiko multzotik, hauek bukatu arte. Mahaiko kartak bukatzen direnean, jokalaria bat kartarik gabe geratzen denean edota jokaliek eskutan dituztenak jarri ezin dituztenean, jokoa bukatu da.

Jokalaria bakoitzak bere pertsona irudidun kartaren inguruan bildutakoak kontatuko ditu. Pertsona irudidunak, berdeak eta urdinak puntu bana balio dute. Gorri bakoitzak, berriz, minus bat. Puntu gehien dituenak irabazi du jokoa.

5 ETIKETEN JOLASA

72 kartaz osatutako karta-sorro edo baraja: 36 kartek pertsonen irudi bana daramate (18 neska-emakume eta 18 mutil-gizon), beste 9 kartek emakumezkoen ikurdun etiketa gorria eta beste 9k etiketa berdea, azkenik, 9 kartek gizonezkoen ikurdun etiketa gorria eta beste 9ak etiketa berdea.

Jolasen helburua hau da: etiketa horiek ez direla egiazkoak frogatzea, banakako pertsonen etiketa edo kajo horietatik alde egiten dutela, sexismoz zegozkien bereizgarriak izan beharrean, beste ezaugarri batzuk izan ditzazkelako.

1.- ETIKETEN JOLASA:

Kartak ondo nahasi eta jokalarien artean karta guztiak banatzen dira. Adoztutako txanda jarraituz, jokalaria bakoitzak karta bat jarri behar du mahaian dagoenaren gainean. Lehen jokalariai beti pertsona irudia duen karta jarri behar du. Horren gainean dagokion etiketa bat. Honen gainean berriro pertsona irudiduna eta beti horrela, etiketa eta pertsonak txandatu, bata bestearen gainean pilatuz.

Noiz dagokio etiketa pertsonari eta pertsona ekitekari? Sexuz edo edukiz egokitzen zaionean. Emakumeen etiketaren gainean beti emakumea jarri ahal izango da, baina baita ere gizonezkoa, irudiko gizonak etiketa diona betetzen badu (etxeko lanak egiten ditula, adibidez). Jokalariak jartzeko karta badute, ipini egin behar dute derrigorrez. Jartzekorik ez duenak ordurarte mahaian pilatu direnak berarentzako jaso beharko ditu eta pilatzeari berriro hasiera eman. Kartarik gabe geratzea lortzen duenak irabazten du.

2.- BIKOTE KONTRAJARRIAK:

Ondo nahasi ondoren karta guztiak banatzen dira jokalarien artean. Esaten denean (bat, bi eta hiru) jokalaria guztiak batera aldamenekoari karta bat pasako diote erakutsi gabe. Jokalaria batek bikote kontrajarria egiten denean, mahaira botako ditu karta biak. Kartarik gabe gelditzen den lehenak irabazten du.

Zer da bikote kontrajarria? Etiketa eta irudiko pertsona elkarrekin bat ez datozenean, kontrakoak direnean. Adibidez: emakumeak beldurtiak dira dion etiketa eta neska eskalatzailaren irudia duen karta.



6 IKASLEAREN KOADERNOA

DIN A4 neurria tolestutako eskuetan duzun bezalako bi DIN A3 dira. Kolore horia nagusi duen eta bitan banatzen den koaderno honek, lehenengo unitatea denez daraman NAHIKO proiektorearen aurkezpen laburra edo sarreraren ostean, fitxa moduko bederatzita atal hauek ditu:

- 1.- Nor da nor?
- 2.- Ispilua.
- 3.- Nere alde onak.
- 4.- Lagunen ispilua.
- 5.- Etiketarik ez, eskerrik asko.
- 6.- Hitzez hitz, aurrera egin.
- 7.- Giza eskubideen proposamena.
- 8.- Zuk duzu hitza.
- 9.- Autorretratua.

Nahiz eta lantxo gehienak aurrean azaldu ditugu n jolasekin zer ikusirik duten, eta ekintza horiek egin ondoren, hizketarako beta handiagoa eta aberatsagoa egin badaiketeen, aurretik jolasak erabili gabe ere ondo ulertu eta egin daitezke. Lehenengoa, 5. eta 7garrena dira aiposmenak taldeka egin edota bakarka egin ondoren taldeka lantzeko, hitz egin eta ondorio amankomunak ateratzeko edo antzeko baliabideetarako. Beste atalak, berriz, gehiago dira norberaren hausnarketa eta autoezagutzetarako.

EMAKUNDE
EHAKUMEREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

NAHIKO! 5-6

NOR NAIZ NI?

1 UNITATE DIDAKTIKOA

IKASLEAREN KOADERNOA (2/2)

7 GIZA ESKUBIDEEN PROPOSAMENA

Nazio Batuetako Batzar Nagusiak

GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSAL
hau egiten du (1948ko abenduaren 10a)

Herri eta nazio guztiak izan behar diren jomuga legez, bai nerbanakoei eta bai erakundeek. Aldarrirapen honetan atengabe oinarrituta, alde horietan, eskubide eta sakatasun hauen legezkoa bultzatzen duen trankuntzaren eta berrikuntzaren bidez eta, berretsi, nazio mailan eta nazioarte mailan arau-erria neurriak hartuz, eta eraginaren eta ondorearen azar dituzten eruztekin, bai aldiakide diren estatuetako herrien artean eta baita horien eskumenpean dauden lurraldeetan ere.

IZENA

7 FAMILIAREN KOADERNOA

Eskuetan duzun bezalako DIN A3 bat da. Bere kolore nagusia berdea da. Lehengo unitatea denez Nahiko proieктоaren aurkezpen laburra edo sarrera darama. Haren ostean, fitxa moduko bost atal hauek ditu:

- 1.- Etxekoen noren antza.
- 2.- Nire egun on bat.
- 3.- Nere alde onak.
- 4.- Sendatu eta laguntzen duten hitzak.
- 5.- Etiketak? Ez, eskerrik asko.

Etxean eta etxekoekin egiteko pentsatutako lantxo errez hauek, unitatearen bukaeran egitea komeni da, ikasleek jadanik eskolako materialak, jolasak, ekintzak eta koadernoaren egiten hasi direnean, guzti hauekin lotuta bait daude, eta ikasleek hobeto ulertu eta azaldu diezaiekete etxekoei egiten ari direna.

Gehienak ikaslea eta etxekoak bildu, hitz egin eta bukaeran ikasleak berak idaztekoak dira. Laugarrena berriz, etxekoek zuzenean idaztekoa da.

Denbora aldetik, helburua ez litzate izango (horrela egin ahal bada ere) egun batean dena arinarin egitea. Alderantziz, egokiena aste osorako lana proposatzea iruditzen zaigu. Poliki egiteko, egunean bat egiteko adibidez, betetzen oso errezak eta laburrak diren lantxo bakoitzaren aurretik, elkarrizketa eta jolas luze, aberats eta atsegin asko egon daitezen, familiarentzat betebeharrak gogangarria izan ordez, aukera gozagarri bat izan daitezen.

